



## ZALDIBIAKO UDALA

Zerbitzuak, obrak eta  
gizarte ongizatearen arloa  
(Gipuzkoa)

2019ko Zaldibiako Santa Fe jaiak urriak 4, 5, 6, 7 eta 11an ospatuko dira. Orri honen atzealdean duzue jaietako azpiegituren kokapen zehatza nola izango den.

### TRAFIKOA HERRIGUNEAN:

**Urriak 4, ostirala**, 18:00etan ibilgailuentzako bidea itxiko da  
Mediku Etxetik Mariaundiñea bitarte, **larunbat goizeko 07:00ak arte**.

**Urriak 5, larunbata**, 13:00etan ibilgailuentzako bidea itxiko da  
Mediku Etxetik Mariaundiñea bitarte, **astelehen gaueko 22:00ak arte**.

**Urriak 11, ostirala**, 18:00etan ibilgailuentzako bidea itxiko da  
Mediku Etxetik Mariaundiñea bitarte, **larunbat goizeko 07:00ak arte**.

Herri-gunean **BADOA** duten herritarren ibilgailuak soilik sartu ahal izango dute, Mariaundiñetik kontrako norabidean sartzeko behin-behineko baimena izango dute autoa garajejan sartu edo ateratzeko.

Kaleko aparkalekuak libra daitezzen, **norbere GARAJEAK ERABILTZEKO DEIA** egiten dizuegu herri-gunean garajea duzuenoi.

ESKOLAKO APARKALEKUA LIBRE UTZI BEHARKO DA ATRAKZIOEN MUNTAI ETA DESMUNTAI EGUNETAN. Zehazki 2019ko urriaren 2an 10:00etatik aurrera eta urriaren 13an 14:00etatik aurrera muntatu eta desmuntatuko direnez ezingo da ibilgailurik bertan utzi aparkatuta.

### GARRAIO PUBLIKOA – AUTOBUSA:

Herri-gunea itxita dagoen garaian, **autobusak Arrese edota Biloreko** geltokian hartu zein utziko ditu bidaiariak, **ez da plazatik igaroko**.

**HONDAKINAK:** Atez ateko egutegia berdina izango da, bereziki gogoratu kuboak ez kalem uzten bilketa ez dagoen egunetan.

### KARROZAK:

Urriaren 11an, **OSTIRALA**, mozorro festa izango da arratsaldetik eta horren harira, hainbat taldek karrozak aterako dituzue. Karroza handiak jartzeko autobus geltokia erabil dezakezue. Bi baldintza betetzea eskatzen zaizue: **goizeko 01:00k baino lehen karrozak gordetzea** eta hurrengo egunetan **desmuntatzean hondakinak Garbigunera** (Ordiziara) eramatea.

### HERRI-ZAINTZA:

Zaldibiako herritarrez gain, inguruko herrietakoek ere gozatu nahi izaten dute gure festez. Begirunez har ditzagun batetik, eta bestetik, eska diezaiegun begirune berbera bertako herritarrekiko eta herriarekiko. **Parke Botanikoa ITXI** egingo da festetan zehar eta gainontzeko lekuetan **zaintza lanak** egingo dira, baita **BOTILZAHARRA** programa ere.

Zaldibian, 2019ko irailaren 27an